

AZKUE BIBLIOTEKA 1982 MEMORIA

Iragandako 1982. urtean Azkue Bibliotekak hartu duen abiadura urte askotan gogoratzekoa izango da. Bibliotekak izan duen aitzinkontu ugariak (hiru miloi terdi) zabaldu dio liburu baliotsuak erosteko bidea alderdi batetik, eta harremanak, bestetik, lortu dute hainbat liburu dohainik erakartzea. Azken hiru urteetan (1979-1981) 3.700 liburu eta aldizkari urtero sartu baziren, aurten 7.494 sarrera erregistratu dira eta horietatik 3.991 dohainik hartuta, hots, % 53 ordaindu gabekoak.

Erosketak

Urtarrileko bileran erabaki zuen Batzordeak Enziklopedia hauek erostea: *Encyclopédie de Diderot et D'Alembert* (Paris, 1751-1772) bigarren argitalpen berezia, *Encyclopaedia Britannica*, eta *Encyclopaedia Universalis*. Limako Karmeldarren Bibliotekatik 162 liburu baliotsu ekarri ziren. Eta Donostian, Barkaiztegi jaunaren liburutegia orraztu ondoren, 354 liburu erosi ziren, *Diccionario de Pascual Madoz* eta *Gipuzkoako Batzarren Agiriak* tartean zirelarik, 439 mila peseta ordainduz 800 mila pezeta inguru balio zuena. *Vida Vasca* aldizkariaren artxibo eta atzeratutako aldizkari pila era 50 mila pezeta ordainduz ekarri ziren Azkue Bibliotekara. Hauetatik aparte hainbat liburu zahar eta baliotsu erosi dira Madrilen, Barcelonan, Zaragozan eta Euskal Herriko liburu saltzaileen etxeetan: Manterola, Zabaltzen, Zuretzat, Llano, Iratxe, Goyaz, etabar. Guztira 3500 liburu dira aurten erosi diranak. Liburu hauek eta bulego-gaiak erosteko 3.393.449,30 pezeta ahitu dira.

Dohainik hartutakoak

Bereziki aipatu behar dena da Arrasateko Eskola Politeknikoak altxabiran utzi duen Juan Carlos Guerraren liburutegi eta artxiboa. 2.383 liburu dira liburutegi hau osatzen dutenak eta Katalogoa egina da. Irailean eta Urrian egin zen liburuen fitxategia eta Azaroaren hasierarako egina zen Katalogoa. Liburu guzti hauek Azkue Bibliotekan daude 1983.eko Urtarrilaren 26an ekarrita. Artxiboa taiutzen ari da momentu honetan Bibliotekari ordea eta hilabete barru edo bukatua izango da Katalogoa. Liburutegia baliotsua bada —lau inkunable daude— ez da merkeagoa izango artxiboa, XIV. gizalditik hasita daude agiriak eta. Artxibo hau ere Urritik hona Azkue Bibliotekan datza. Beste 1.608 liburu jaun hauen eskuetatik dohainik hartu ditu Bibliotekak:

Juan San Martin	522 liburu
Goñiko elizatik	361 liburu

Donostiako Ordezkaritzatik	112
Markinako Arriaga jauna	102 liburu
Tolosako Inazio Ugarte	83 liburu
Bilboko Luis Angel Gainza	68 liburu
Xabier Gereño.....	55
Nafarroako Diputazioa	55 liburu
Bizkaiko Diputazioa	49 liburu
Jose Antonio Arana Martija.....	37
Eibarko Paulino Larrañaga	26
Ediciones Mensajero	25 liburu
Jose Luis Iturrieta	25 liburu
Miarritzeko Libreria Maite.....	15 liburu
Eibarko Dionisio Murua	14 liburu
Auñamendi Argitaletxea	14 liburu
Erein Argitaletxea	13 liburu
Jose Maria Satrustegi.....	12 liburu
Juan Antonio Garmendia	10 liburu
Udako Euskal Unibertsitatea	8 liburu
Federiko Krutwig	8 liburu
Endrike Knörr	5 liburu
Xabier Kintana	3 liburu

Nafarroako Diputazioak eman zuena *Catálogo del Archivo General de Navarra* da. Eta Bizkaiko Diputazioak emandakoen balioa 80 mila pezetatik gorakoa da.

Hemeroteka

Orain arte bezala, *DEIA* eta *EGIN* egunkariak hartzen eta koadernatzen jarraitzen da. Egunkarietan agertzen den euskara kontrolatzeko, Donostiako *HOJA DEL LUNES* ere 1980an hasita lortu da eta koadernaturik dago Bibliotekan; Bilboko *EL CORREO ESPAÑOL* ere 1981. hasieratik hartzen da *Euskera* agerkariaren trukean. Hartzen diran astekeriak ere pila bat dira, Euskal Herri osotik hain zuzen. 250 aldizkari desberdin hartzen dira Azkue Bibliotekan. Beraz, nahiz eta toki problemak sortu, hemeroteka baliotsu bat egiten ari dela Euskaltzaindia aitortu beharko da.

Bestelako lanak

Tokiaren problema da larriena egunotan. Azken lau urteotan, lehen zeuden baino hiru bider gehiago sartu dira liburuak, eta apalak gainezka jarri dira. Horrez gainera, Guerraren liburutegia sartu behar zenez, apalategi gehiago jartzea erabaki zen eta egunkari eta aldizkariak denak atera dira zeuden tokitik Bibliotekaren sarreran jarri diren apalategi berrietara, gela bat Guerrarena sartzeko hustuz. Baina tokirik gabe dago Biblioteka eta premiazkoa da egoitza berria hainbat arinen lortzea.

Bibliotekako sekretaria den Nerea Altunak umea egin zuen Apirilaren azken egunetan eta Josune Olabariak bete zuen hutsunea Nerea Altuna berriz lanera etorri arte. Juan Carlos Guerraren liburutegia Arrasaten bertan sailkatu eta fitxatu egin behar zenez, Irailetik hasita bien laguntzarekin baliatu da Biblioteka, hots, Nerea

Altunak Bibliotekan egin du bere betebeharra eta Josune Olabarriak eman du Arrasateko lana burutzeko laguntza.

Aldizkarietan agertzen diren lanen fitxak egin dira milaka eta horrez gainera Bibliotekaren Katalogoa prestatzen ari da Bibliotekari ordeak, sailka lan hori eginez. Gramatikaren fitxak eginak dira eta laster bukatua izango da sail honen Katalogoa. Linguistikako liburuena izango da hurrena.

Bonaparte Printzearen argitalpen eta eskuizkribuen Katalogoa ere burutu du Jose Antonio Aranak, Lafitte jaunaren omenezko liburuan —IKER-2— agertuko dena.